

*ZEMAI ABAGADAUNE**

Joseba Lakarra

Erroek eta gainerako morfemek berezko dutelarik egitura kanonikoa, eta hizkuntza guti direlarik beren bilakabidearen garairen batean besteren bat(zu)ekin harremanetan izan eta haietarik lexikoaren eta gramatikaren elementu zenbait bertakotu edota eraldatu ez dituztenak, morfemen egiturak leku-kotasunik eman lezake hizkuntzon arteko harremanaren historiaz, dela morfemon mailegu-izaera agertuaz, dela hauen kronologia-ezarketa erdiesten lagun-duaz, dela zein hizkuntzatistik eta bidetatik iritsi diren hartzailera zehaztuaz.

Mitxelenak inoiz aitortu zuenez, baliteke ikertzaileari gertatzea besterik gabe eta arrazoi formal hutsengatik, delako hitz batzuk mailegutzat jotzea, are inork haien jatorria aurkitu edo bilatu ere ez duelarik. Hitzen luzera, esaterako, dagoeneko Sapirorek aldarrikatu zuen irizpidea dugu: delako hizkuntza batean halako forma kanoniko bat izaki, hitz batek silaba kopuru jakin batekin gora badu, bi analisi-aukera ditugu; hots, edota zati txikiagoetan eman daitzeen eratorri edo konposatu batekin ari gara, edota mailegu batekin (cf. Mitxelena 1963: 48).¹ Hemendik jarraitzen da, aitzineuskara zaharrerako erroaren egitura kanonikotzat CVC hartuaz, hurrenez hurren konposatu eta eratorri bana ditugun *horbel* edo *zuri*-rekin bezala egiterik ez izanik, **ardano*-rekin, mailegaketaren aukera ere ez genukeela ahaztu behar honetan.

* Neure eskerrak beroenak Blanca Urgelli aurreko zirriborro bati egindako zuzenketengatik, Henrike Knörrri probetan egindakoengatik eta, orobat, beharbada gaia “polítikoki dese-goki” gerta zitekeela adierazi didaten adiskideei. Lan hau MCyT-ko *Fundamentos para unos Monumenta Linguae Vasconum* ikerketa-proiektuaren barnean kokatzen da. Geroztikoak dira bibliografian aipatu ditudan 2000 ondorengo saioak, hau bezala erroa, berreraiketa eta horien ondorio den etimologiazko azterketez.

¹ Beti ere aska ezin genezakeen jatorrizko lexikoko eraketa arkaikoak ere badirela gogoan izanik, Mitxelenak eta gainerako iturriek egiten duten bezala.

Auzoko adibide bat hartuaz, Huld-ek (1990) Polomé, Salmons eta beste-rekin Europa-mendebaleko substratuko morfemak bilatzerakoan lau irizpide aurkeztu zituen lanabes gisa: 1) erdaratiko hotsak, 2) hots konbinaketa arrotzak, 3) ezaugarri morfologikoa bereziak, 4) banaketa mugatuak². Lau irizpideok erabiliaz eta IE erro kanonikoa CVC monosilabikoa dela (1990: 393) kontuan izanik, Meilletek “mendebaleko hizkuntzak” deitu zituenetarik bi dozena hitz bil omen daitezke: zazpi italikoan eta zeltikoan Huld-ek “Alpeetako” deritzon iturri-hizkuntza galdukit: hitz tipikoak disilabikoak dira eta erdiko geminatuak dituzte; gainerakoak Balkan eta Egeo aldeko dira, silaba irekiak dituzte, soilik diptongo eta sudurkari gehi herskari taldeekin (1990: 394).³

Bestalde, Baitchurak (1987: 168-169) arrazoi bide luke –gauzak horrela balira– konparatzaileek oker jokatzen dutela esatean, hizkuntzen lexikoaren erdiarekin jokatuaz gainerakoa mailegatua dela aitzakia⁴. Izan ere, jatorrizko lexikoaren ereduen gorabeherak, indarra eta iraupena maileguen bertakotzetik atera daiteke usu, Mitxelenak euskal fonologia zaharrarekin egin zuen legez: hots, baldin eta latinetiko lexikoan *-nn-* > *-n-*, *-n-* > *-ø-*, *-ll-* > *-l-*, *-l-* > *-r-* badugu eta jatorrizko lexikoan *-n-*, *-ø-*, *-l-*, *-r-* gorde badira, orduan aitzineuskaran *-N-* / *-n-*, *-L-* / *-l-* bereizi behar ziren, latinez *-nn-* / *-n-*, *-ll-* / *-l-* egiten ziren bezalatsu (cf. Lakarra 1996b).

² Zein diren ezagutu ondoren haien kronología zehazteko Mitxelenak (1974: 197-8) ondoko irizpideak aurkezten ditu: “Si nos atenemos a los criterios formales, los más fáciles de aplicar objetivamente, han de tenerse presentes dos aspectos, contradictorios a primera vista: en términos generales, los préstamos serán tanto más antiguos cuanto mejor conserven su aspecto original y, a la vez, cuanto más lo hayan modificado. Serán antiguos, en otras palabras, en la medida en que no muestren señales de los cambios fonéticos que se han realizado en los romances vecinos, pero también en la medida en que han participado de otros, propios del vasco mismo, ya que esta participación es la mejor prueba de que se habían incorporado al léxico de la lengua antes de su cumplimiento. Unos y otros, sin embargo, pueden coincidir alguna vez y también sucede que la configuración fónica del préstamo, poco característica, no alcance a dar luz acerca de la fecha de su introducción”. Egitura esanguratsurik ez duten horietan esanahi aldaeretara, geografikoetara, eta bestetara jo behar.

³ Banaketa mugatuari dagokionez gogora Gorrotxategi 1987-n *sarika*-rekin erabiltzen den argudioa, ez mailegutzat jotzeko baizik eta estratu zeltikotik ala latindarretik hartua den erabakitzeko.

⁴ Ez, ordea, berak nahiko lukeen bezala hitz guztiak direlako mailegu eta, beraz, maila bereko; azken finean Schuchardtekin eztabaidan Meilletek duela ia mende bat gogoratu bezala, hizkuntza guztietain “jatorrizko lexikoa” kontzeptu erlatiboa izan arren, hizkuntzaren bilakabide ezagunaren barnean absolutua bilakatzen da eta garai diferenteetan sartutako maileguezek ez bezalako informazioa eman liezaiguke.

Potetek (1995: 345) "When loanwords are excluded, ones realizes that many Tagalog words are based on monosyllabic root (consonant-vowel-consonant)" ohartuaz edota Jobek (1995: 242) Kaukasoko lezgi hizkuntzan soilik maileguetan agertzen dela 'ahostun — V — ahostun' segida gogoratzen digunean, guztiok teorian aspalditik dakiguna baino ez digute markatzen, hots, maileguei bertakotzea kosta egin dokiekeela eta inoiz beren azaleko egiturak⁵ sala ditzakeela atzerritaratzat. Hizkuntza austronesioetan bestela ere enbor bisilabikoetarako joera garbi ez balitz, mailegatuek lekukotasun interesgarri-rik eman ahalko lukete (Gonda 1949/51-52: 323). Hizkuntza zenbaitetan mai- leguek izan duten bilakaeraren azterketa konparatuak interes berezia luke hiz- kuntza hartzileen egitura morfonologikoa ikertzeko. Inoiz, Schützek (1976) hawaierak ingelesetik hartutako berbekin ikertu duenez, jatorri berekoek ere oso emaitza ezberdinak baitituzte gertuko hartzaleetan⁶. Han bertakotutako maileguak gogoangarri dira, ez soilik hizkuntza horren —hobe herri horren— historiarenean barnean suposatzen dituzten fenomeno bereziengatik, baizik eta orobat familiako kide hurbil dituen Tonga eta Fiji irletako austronesioak jato- rri beretik hartu dituenerik berezi samarrak direlako: beren fonema ibentariaok eta distribuzioak baduke horretan zerikusirik.⁷

Aski izan bedi, beraz, baieztagoera etimologia berriek zeresan handia dute- la aitzineuskaren egitura morfonologikoa eta horren barnean erro eta gaine-

⁵ Ohar bedi ez garela soilik egitura segmentalaz ari: "By the structural study of a language it is possible to isolate a number of more or less complete phonological systems of which one may be regarded as primary. A system whose prosodic structure conforms to the primary pattern, may be felt by the native speaker to be fully naturalized, even through phonematic features may reveal its non-primary character. Words felt by the speaker to be of a special kind are marked by special prosodic patterns. "Special words" are of the following types: a) exclamation... b) onomatopeyas... c) loanwords" (Henderson 1951: 156, Asia hego-ekialdeko hizkuntzez). E. E. Wallsek ("The word and the phonological hierarchy of Mezquital Otomi", *Language* 44 (1968), 76-90) "A balance of the following components (in ranked order) is crucial to word structure: stress, tone, length, nasalization, glottalization and syllable release (...)" dio hasieratik bertatik. Euskaraz ere *básò* eta *básó-ren* artean den diferen- tzia segmentuz landakoak lehendabizikoaren mailegu izaera salatzen du argiro.

⁶ Hori da sanskritotik hartutako maileguekin malayalamean eta tamilean dakusaguna (cf. Mohanan 1989: 615), edota latinotik ondarearekin euskaraz eta erromantzez (cf. Mitxelena 1957b eta 1974).

⁷ Hemen ere maileguen bertakotzeak hizkuntzaren joera sakonen berri eman liezaiguke: ingelesezko CVC morfemak hartzen dituztenean, hizkuntza hauetan CVCV bilakatu ohi dira, euskara zaharreko *muta cum liquida* taldeak ezabatzeko ezartzen den bokalismoaren antzeko (baina kontrako zuzenbideko) erregela batez: *bell* > *pere*, *fig* > *piki*, *bull* > *puru*, etab. (Krupa 1971: 678). Bokal kopia hawaieraz galdu eta bestelako bokalak eransten direla badirudi ere, Schützek (1976: 88) neurri batean hori misionisten saio hutsala izan zela dios- ku.

rako morfema zaharren zernolakoak argitzen. Merezi bide luke, bada, etimología irizpideak alderdi honetatik⁸ zehaztea ikertzailearen usaimenaz gainetik, nolanahi ere, emaitzak eta horien segurtasuna areagotuko bailirateke zalantzak gabe.

Azkueren hiztegiak *zemai* “(B-a-g-l-m-o-ts~), amenaza, menace” itzultzen du Mogelen eta Uriarteren bi pasarteren laguntzaz: *Alperrik soldadu erkin, koldar ta guperea zapalduko dozu zemaiz ta agiraka garratzez* “en vano cubriréis de amenazas y riñas agrias al soldado enclenque, cobarde y delicado : en vain agoniserez-vous de menaces et d'aigres querelles le soldat débile, lâche et délicat” (*Per. Ab.* 204-11) eta *Beti gogoan ebala arako Jaungoikoaren zemaiia* “teniendo siempre en la memoria aquella amenaza de Dios : ayant toujours à la mémoire cette menace de Dieu” (*Ur., Maiatz,* 112-3). Horrezaz gain *zemaitu* “(B-o,...) amenazar, menacer” eta *zemakuntza* (B-tš) “amenaza, menace. Var de *zemai*” ere badakartza Añibarren lekukotasunarekin: *Ainbeste argialdi eder, dei gozo eta zemakuntza bildurgarri* “tantas hermosas inspiraciones, dulces llamamientos y terribles amenazas: tant de belles inspirations, de doux appels et de terribles menaces” (*Añ., Esku-lib.* 29-7); beheraxeago aditzaren beste aldaera bat, aurreko baino hedatuagoa sarren tamainaren eta Azkueren oharren arabera: *zematu* (Bc, ...G?).⁹

Hitz familia honen lehen lekukotasunak —ez da harritzeko, noski— Azkuek dakartzanak baino lehenagokoak dira eta Sarasola 1980an s.u. agertzen zaigu Kapanagaren *Cemaia edo agrabioa eguiten dabenac* “El que hiçiere amenaza, injuria” (49. or.); nolanahi ere, ezagutzen ditudan hitz familia honen lekukotasun zaharrenak —ez izenarenak aditzarenak baino— RS-eko (1596) biak ditugu: 23 *Cematuoc oguien jala* “Los amenaçados comedores de pā” eta 93 *Cematuoc gueyago orzituac baño* “Más los amenaçados que los enterrados”.¹⁰

Hitzon hedadura ez da B-tik ateratzen, gainerako euskalkietan *mehatxu* (L, B¹¹, BN, S; SP, Urt V 434, Ht VocGr 384, Aq 956 (AN) y 1445, Lecl, Arch

⁸ Eta agian baita besteren batetik, esaterako hitzen distribuzio osagarriak eta bestelako kombinaketek beren jatorria ikertzeko eman lezaketen laguntzarenetik. Iku索 orain Lakarra 2002 eta 2005.

⁹ Eranskinean oraindik “*zemaizkoa*, conminatorio (juramento)” dator, xehetasun haboro gabe. *Garbatu* (<*garbanatu) ere *garbaitu* baino hedatuagoa da; cf. 13. oh.

¹⁰ Voltoire 230 *Mehatxatuek oraño jaten dute ogia* agertzen da OEH-n s.u. (orobat iturri bereko *mehatxatzen* bat ere); kasu *zematu*-ren baliokideari.

¹¹ Ez dakit Azkue izanik haren iturri aitorria nola dakin *OEH*-k “B” hau, hark “(AN-b, BN-gar, Sc)” baitu *me(b)atšu-n*, “(AN-BN-s, G)” *me(b)atšatu-n* eta “(AN, BN, S)” zabalagoa edo zehaztasun gutxiagokoa *me(b)atšuzko-n*; ez dirudi Azkuek bere euskalkian entzun edo irakurria zuenik. *OEH*-n s.u. batzen diren adibideen artean ere ez dut jatorri horretakorik aurkitu. Ik. hurrengo oharrean Lardizabalen *zemai-z*.

VocGr, VocBN, Gèze, Dv, H)", *meatxa* "(G; Lar, Añ (G, AN), Izt VocC)", eta *beaza* "(Lcc, Lar Sup → H)" mailegu garbiak direlarik. OEH-ko lekukotasunen laburpenean *zemai*-ren kide hauetaz "Tr. Documentado en la tradición septentrional desde Leitarraga. Al Sur se encuentra en Mendiburu, Lizarraga de Elcano, en un texto de Lesaca de mediados del s. XIX (ETZ 255 *miatxu*) y en algunos autores modernos. *Me(h)atxu* es la forma g(ene)ral. Hay además un ej. de *miatxu...* y *meaxu* [bana Tartas eta EtxSarakoak]" dioskute.

Interesgarri begitanten zaigu markatzea ez *mehatxu*, ez *meatxa*, ez *beaza* ez direla *zemai*-ren lurralteetan aurkitzen¹², ez eta —Azkueren galdera ikurra gora-behera— azken hau haienetan, *leibo / bentana*, *zaldi / kaballoa* eta bestelako bikoteak ezezagunak izan ez arren hainbat euskal hizkeretan; *amenazo/-u*, *amenazatu* ageri dira, aldiz, B aldeko lurretan: OEH-ak, esaterako, "no hemos encontrado más ej. que los citados" batekin DFrec delakoan lau adibide direla (sei *amenazo-renak* eta hiru *amenaza-renak*) gaztigatu ondoren bada ere, Otxoa Arin, Beobide eta Txirritaren adibide batzuekin batera Astarloaren bi hauek dakartza s.u. *amenazatu*: *Bigarrena da norbait gatx edo gatxen bategaz zematu edo amenazetia juramentubagaz* (Astar II 60) eta *Zerbait inori aginduten deutsazunian edo berbarem bat emoten deutsazunian, bardin da kastiguben bategaz zematu edo amenazetan dozunian* (Ib. 62).

Amenazo, -u, -a ondoko sarreran berri interesgarriak biltzen dira, Azkueren (BGuzur 141) "Zemaiek esateko gure errien *amenazuek* esaten da" -rekin hasiaz; hor dira —ohiko DFrec-eko kopuruez landa— B-z bildutakoak oro: *Izango ezta ne(u)re ustean / ain golpe segurua / ezpada amenazua* (BBizk 9), *Kristinaubak, nor bildurtuko ezta Jaungoikuaren aotik zematute edo amenaza au enzunik?* (Astar II 174), *Lau modutakua da juramentuba, baijeztuba edo baijezkua, zematugina edo amenazazkua, biraokzku eta aginduzkua* (Ib. 60). Azkenik, bada ondoren *amenazoka* ere, bertsolari gipuzkoar izengabe baten adibide bakarrarekin eta DFrec ditxosozkoan bi gehiago direlako oharrekin. Alabaina, eta honetara gero bihurtuko gara, *a-* duten forma horiek berankorrik dira erromantzez (cf. Corominas-Pascual s.u. *amenazar*) eta ez da zer suposa ø-dunetarik euskaraz bertan sortuak direnik, eta bai kanpotik

¹² Ikus aurreko oharra. Bestalde, OEH-ren arabera badirudi Lardizabalek *zemai* erabili zuela inoiz (nahiz eta *amenaza*, *amenazu*-rekin batean): *Zemai edo amenazakin zentzatu nai izan etziranak, ipini zituen Mesopotamiako errege Chusan Rasatainen eskuetan* (Lard. 122) eta *Uste zuen, bere penitenciarekin Jaunaren aserre zuzena itzali zuela, eta Natan Profetaren bitartez egin ziozkan zemai edo amenazak, itz utsetan geldituko zirala* (Ib. 194); *zemai* eta *mehatxu*-ren konbinaketaren salbuespen bakar izateaz landa, gogora bedi, alabaina, Lardizabalengan ikusi izan den bizkaieraranzko joera. Gainera, bi esaldietan *zemai*, *-a* itsatsiarekin agertua ez ote aski susmagarri?

horrela hartuak. Bidenabar, dela *zemai*-ren familiarekin, dela *menaza*-renarekin aurki litezke *a-* ereduko hauek; ezingo dugu hau ahaztu gero, dakidanez, orain arte ukitu ez den *zemai*-ren etimologiara bihur gaitezenean¹³. Artean komeni da *abagadaune*-z segurtasunez ezagutzen dugun apurra bil dezagun.

Sobre el pasado de la lengua vasca-n Mitxelenak dioskunez, hitz batzuetarik beste batzuetara mailegutasuna edota mailegu izaeraren segurtasuna ez da berbera: erabateko segurantzatik erabateko ezjakintasunera maila anitz baita. Horrela, inoiz, etorki zuzena markatu ez arren delako forma bat mailegutzat jo ohi dugu:

Como se comprenderá no se puede hacer, ni tendría mayor objeto, un recuento por así decir mecánico de los préstamos latinos —concepto en el que vamos a subsumir también lo románico— en vasco: las cifras, absolutas o relativas, que a veces se suelen presentar no son más que el resultado de estimaciones hechas a ojo de buen cubero. En efecto, y aparte de que no todo lo que consideramos préstamo posee el mismo valor, cualquier género de cuantificación está lleno de trabas e inconvenientes.^{13b}

Uno, y no el menos importante, es la incertidumbre que nos domina a menudo acerca del origen de una palabra: desde los ejemplos claros en que la admisión de un prototipo latino explica satisfactoriamente un término vasco en forma y sentido hasta aquellos en que una hipótesis de esta suerte aparece extremadamente improbable, se escalona una multitud de casos dudosos. Por consideraciones formales sobre todo, uno se siente p. ej., inclinado a ver préstamos en vizc. *abagadaune* “ocasión” (con el suf. *-une* tratado en 4.2.), occid. ant. *apukadu* “sucedido”, ronc. *atizatu*, *atxezatu* “comulgado”, *dollor* “ruín, malo”, *elikatu* “abstenido” y “alimentado”, vizc. ant. *endoreea* “el alcalde”, *errexal* “árbol” en Landucci, etc., pero no se ha señalado que sepamos su origen preciso de manera solvente (1964: 33).¹⁴

OEH-n “*abagune* (V, G¹⁵; H), *abadune* (V-m), *abagadaune* (V; PAbVoc), *abagadune* (V-ger-ple), *abegune* (V-ger; H; Izt. ap. DRA)” dator, lehen adieran “1. (Buena) ocasión (...) Tr. No lo hemos encontrado antes de Moguel y Añibarro. Vuelve a usarse a partir de fines del siglo XIX, sobre todo por auto-

¹³ *HLEH*-an *zemaitu*, *zematzaire* bezalakoak biltzen dira baina leku kotasun modernoekin; cf. 9. oh.

^{13b} Cf. orain Adam Zawiszewski-ren lana, usuuste baino emaitza murritzagoekin.

¹⁴ Azkuek sarreraren akabuan “Parece que estas voces son derivadas de *abago*, *abaga* o alguna palabra por el estilo, perdida o tal vez ignorada. Il semble que ces mots sont dérivés de *abago*, *abaga* ou de quelque mot semblable, perdu ou peut-être inconnu” zioen, baina ez bide zitzaina Mitxelenari 1964an eztabaiderako gai iruditu.

¹⁵ Mitxelenarentzat eta *OEH*-k oinarritzat darabilen Azkuerentzat ikusi dugunez soilik “B” da; beranduago, mende honetan esaterako, G-ko idazleren batzuek erabiltzeak ez bide du jatorria aldatzen.

res guipuzcoanos” esaten zaigu, *DFrec* delakoan hiru *abagadune* eta lau *abagune* direla gehituaz¹⁶ eta bigarrenean “Intervalo de tiempo” itzultzen delarik, *Euskalzale*-ko bi kasu eta Agirreren beste hirurekin. Sarreraren akabuan —eta hau ere berria da lehengo Mitxelenaren hitzei dagokienez— “*Etim.* Préstamo con -*ada* + -*une* como final?” gehitzen da, zalantza markarekin bada ere.

* * *

Bi hitz familion zertzelada nagusiak eman ditugulakoan gaude eta haien jatorriaz zerbaite aurreratzen saiatu nahi genuke, horretarako izan ditzakegun arrazoia eta irizpideen sendotasuna pisatuaz.^{15b}

Lehen esan legez, ez dut *zemai*-ren jatorriari buruzko lanik ezagutzen; edonola ere, *FHV*-n ez da ageri, ezta Arbelaitzek bildu egile beraren etimologien liburuan, non ez bakarrik berak sortuak baizik inorenen azterketen iruzkinak ere biltzen diren orobat. Beharbada halabehar hutsa izan zen Mitxelenak *zemai*-ri ere lehen gorago *abagadaune*-z bildu duguna ez ezartzea eta harekin batera beren egituragatik mailegutzat (edota aitzineuskarako lexitotik landakotzat, bederen) jo litezkeenen artean ez ematea. Izan ere, edozeinak dakike ze bi arrazoi izan ohi diren euskal morfema batean /m/ azaltzeko: 1) hitz mailegatu batek berezko duen soinua izatea edo 2) euskal morfema batean /n-/b/ talde baten emaitza edo *b* > *m* asimilazioaren ondorio (cf. *senbe* > *seme*, *heben* > *hemen*) izatea.

Eskuartean dugun honetan **zenbai* > *zemai* edota **zebani* > *zemai* proposatzeko arrazoi berezirik ez dugu, *zemai* < *zenbat* legezkoak berankorrak baitira B aldean. Bestalde, *garbai*, *lasai* edo *alai*-n aurkitzen dugun **-ai* amaiera hori batez ere maileguetan gertatzen dela dirudi; izan ere **-aCi* dugu *nai*, *mahai*, *jai*, *emai* eta bestetan. Uste honen segurtasuna erabatekoa balitz arrazoi bikoitza eta sendoa genuke *zemai* ere mailegutzat jotzeko.

Besterik da haren etorki zehatza aurkitzea. Honetarako, gainerako ikerketa eremuetañ legez, nork bere inspirazioa eta eredu ahal duen lekuaren bilatu ohi du, ez haranzko bidea baizik eta honanzko baita (asmatutakotik edota berreraikitakotik datuetara doana) azaldu eta justifikatu behar dena. Nik neuk Mitxelenak erdietsi bide zuen etimologiarik eder eta emankorrenetako erabili nahi izan dut giltzatzat edo eredutzat. *FHV*-n (326) dakusagunez, mende-baleko *elae*, *elai* eta erdi-ekialdeko *enara*, beren artean itxura batean aski urruiti izan arren formaz, **eNaLa* / **eLana*-tik datozi biak (gogora *kanpae* / *kanpai* edota *gaztae* / *gaztai* < **-ana*). Aitzinforma bata ala bestea har, kontsonan-

^{15b} Ikus *andere* oinarri hartuta antzoko saio bat Lakarra 2005-en.

¹⁶ *abagune* da *HLEH*-n hautatua.

te metatesia proposatu behar dugu lekukotutako aldaeretara iristeko: NVI > LVn edo LVn > NVI¹⁷. Azterkizun dugun *zemai*-ra iristeko **zemana*-tik igaro gaitezke, beraz, eta, goraxeago, baita **zebana*-tik ere orobat. Alabaina, beharrrezko ote bigarren urrats hau?

Zemai-ren baliokideetara bihurtzen bagara, *beaza*, eta *meatxu*, *meatxa* aurkitzen ditugu (*mehatxatu*, *miatxatu*, *meazatu*, *meaxtu* haren aditzarentzat), erdarazko *menaza* jatorriaren bokal eta kontsonanteak ia bere hartan gordeaz: *m* > *b* disimilazioa batean, *n* > *ø* / V_V orotan, da alde guztia. Bada, **zemana*-rainoko berreraiketa –ausardia handirik gabekoa– ontzat ematen badugu, kideotako bokal eta kontsonante talde bera kausitzen dugu; hori bai, ordena differentzia larriarekin kontsonanteetan *m-n-z* / *z-m-n*. Gehiegi ote haien arteko edozein lotura ukatzeko? Ez dut uste, *m-z-n* (**mezana*) izan bai-taiteke tarteko seguruenik metatesi honetan.

Menaza > **mezana* > **zemana* > *zemai* proposamena epaitzeko gogora bedi *zemai*-ren lurraldetan —eta orobat gertatzen da *beaza* eta *mehatxa*-*meatxu*-renetan— ez dela *menaza*-ren (beste) aldaerarik¹⁸ haren sinonimo eta era-torri modernoago den *amenaza*-renak baizik; izan ere, nola horrelakorik espe-ro huraxe baita *menaza*-ri dagokion bilakabidea delako lurralte horretan?

* * *

Abagadaune-ren (nahiz atzizki ezaguna edeki ondoko *abagada*-ren) formak bere mailegu izaera salatzen badu, Mitxelenak esan bezala, komeniko bide da erabakitzea zertan den haren jatortasun eza. Etorki zehatza anekdota hutsa bada ere, honela jokatzea emankorragoa gertatuko da etorkizunean mailegu haboro eta horien bilakabideaz gehiago ezagutu ahalko baitugu euskal morfemen egitura-baldintzak eta baldintza horien aldaketaz irizpideak landuaz.

Itxura batean hiru silabako hitza luze begitandu zitzaien Mitxelenari eta morfema tamainari buruzko uste horren arabera (cf. Mitxelena 1963: 48) mai-legu edo eratorri/konposatura baino ezin izan; bigarren honetarako euskal erro oinarritzkoagorik eta atzizkirik aurkitu ezinik edo, mailegutzat jo beharra ikusten zuen.

Geroztik mailegu izaera hori are seguruagotzat jo genezake: baldin eta Lakarra 1995-en erakutsi zen legea, morfema barneko **TVTV ezintasuna,

¹⁷ Hobeto esan, metatesi bikoitza, kalitatearena ere (fortis <→ lenis) hor baita Mitxelenak ikusi bezala; ez dakit hau (cf. *laño* < *llano* ere) bestetik inon aztertu den, baina baluke interesik morfema egitura mailako erregelei dagokienez.

¹⁸ Orobat goiko *leixo* eta *bentana*-rekin: nekez aurkituko ditugu *lexo* edo **bendana* beren aldaerekin batean.

alegia, onartzen badugu —eta kontrako arrazoi gutxi dela dirudi— are ezinezkoago genuke **TVTVT. Bestalde, noizbait erro guztiak aitzineuskaraz monosilaboak izan zirela onartuz, arrazoi haboro genuke *abagada* mailegutatzat (edota berankortzat, bederen) jotzeko, areago morfema horiek oro C-eskatzten zutela pentsatzen bada.^{17c}

OEH-ren “*Etim.*” ohar horretan zalantza markarekin egindako proposamen (*abagada* < *abaga* + *-ada*) ez zait aitzinamendua iruditzen ikusiaren eta ikuskizunaren aurrean. Izan ere, *abaga* horrek izartxoa eraman behar bide du (ik. 14. oharra) eta ez zaigu esaten nondik eta nola atera edo berreraiki den; areago dena, ohartu ahalko gara mozketa oker baten aitzinean garela: *abagada*-k ez du atzizkirik, ez behintzat euskararen barnean harturik¹⁸. Gainetik, *zemai* aztertzean ikusi dugunez, erromantzez eman izan da euskararen maileguetan gordetzen den aglutinazio prozesurik: *menaza* > *amenaza*. Hau gogoan izanik, zer gertatuko litzateke *abagada* *a-* gabeko jatorriren batetik ekarri nahi bagenu? Bada, katalanez oraindik gorde duten eta gaztelera zahar eta klasikoko *vegada*-tik abiatu ahalko ginatekeela eta ez bestetik, ene ustez.¹⁹

BIBLIOGRAFIA

AGUD, Manuel, & TOVAR, Antonio (1988), *Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca*. ASJU-ren Gehigarriak, Donostia.

BAITCHURA, Uzbek (1987), “On some problems of comparative linguistics. In connection with Mongolian-Turkic and some other Altaic relations”, *Central Asiatic Journal* 31, 161-177.

BAKRO-NAGY, Marianne (1992), *Proto-Phonotactics. Phonotactic investigations of the PV and PFU consonant system*, Wiesbaden, Harrassowitz.

^{17c} Orain **TVTV baino esanguratsuago iruditzen zait (cf. Lakarra 2001) **CVCV, kontuan izanik lehena aitzinaturalikoz ere ezinezko dela eta bigarrena, aldiz, forma kanoniko nagusia askorekin (ik. Bakro-Nagy 1992).

¹⁸ Azkueri hartuta *OEH*-k dakarren *abagadaldi*-k (“(V-m) intervalo, coyuntura, ocasión propicia”) zahartasunen bat balu, bai honetan eta bai *abagadaune-n orain-dan-o* eta bestetan emandako pleonasmoa genuke.

¹⁹ Agud eta Tovarrek Azkueren etimologi hipotesia gogoratzeaz landa, “Acaso la primera parte es romance (¿**abagada*?; o un adverbial de *vegada*?). Nótese la vitalidad de *vegada* esp., cat., occit.; *begada* “rebaño comunal” en gasc. (Corominas 4, 719)” dioskute, baina ondorengoa “Aunque Mich. Pas. Leng. 99 lo considera préstamo por razones formales, no está precisado” batek edozein aitzinamendu hondatzen du.

- BENVENISTE, Émile (1954), "Problemes sémantiques de la reconstruction", *Word* 10, 251-264.
- BLUST, Robert A. (1977), "A rediscovered Austronesian comparative paradigm", *Oceanic Linguistics* 16: 1-51.
- (1988), *Austronesian root theory: an essay on the limits of morphology*, Amsterdam, J. Benjamins.
- COROMINES, Joan (1972), *Tópica Hespérica. Estudio sobre los antiguos dialectos, el substrato y la toponimia romances*, Madril, Gredos, 2 lib.
- , & PASCUAL, Jose Antonio (1980-91), *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madril, Gredos.
- DEROY, Louis (1956), *L'emprunt linguistique*. Paris, Les Belles Lettres.
- ERNOUT, Alfred & MEILLET, Antoine (1979), *Dictionnaire étymologique de la langue latine*. 4. arg. hobetua. Paris, Klincksieck.
- GONDA, Jan (1949/51-52), "Indonesian Linguistics and General Linguistics (I and II)", *Lingua* 2, 308-339; 3, 17-51.
- GORROCHATEGUI, Joaquín (1987), "Vasco-céltica", *ASJU* 21: 3, 951-959.
- , & LAKARRA, Joseba Andoni (1996), "Nuevas aportaciones a la reconstrucción del protovasco", in F. Villar & J. D. Encarnaçāo (arg.), *La Hispania prerromana. Actas del VI Coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica (Coimbra 13-15 de octubre de 1994)*, Salamanca: Univ. de Salamanca & Univ. de Coimbra, 101-145.
- , & — (1999), "Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco". *VIII Coloquio sobre Lenguas y Culturas Prerromanas de la Península Ibérica (Salamanca, mayo de 1999)*. Inprimategian.
- HENDERSON, Eugénie J. A. (1951), "The phonology of loan-words in some South-East Asian languages", *Transactions of the Philological Society*, 131-58.
- HULD, Martine (1990), "The linguistic typology of the Old European substrata in North Central Europe", *Journal of Indo-European Studies* 18, 389-423.
- JOB, Michael (1995), "Did Proto-Indo-European have glottalized stops?", *Diachronica* 12, 237-250.
- KRUPA, Victor (1971), "The phonotactic structure of the morph in Polynesian languages", *Language* 47, 668-684.

- LAKARRA, Joseba Andoni (1995), "Reconstructing the root in Pre-Proto-Basque" in J. I. Hualde, J. A. Lakarra & L. Trask, (arg.), *Towards a history of Basque language*. John Benjamins, Amsterdam/Philadelphia: 189-206.
- ____ (1996a), "Sobre el europeo antiguo y la reconstrucción del protovasco", *ASJU* 30: 1, 1-70.
- ____ (1996b), "Latina eta euskara". UEU-ko hitzaldi argitaragabea.
- ____ (1997a), "Euskararen historia eta filología: arazo zahar, bide berri", *ASJU* 31: 2, 447-535.
- ____ (1997b), "Aitzineuskara: gonbaraketa eta birreraiketa", *ASJU* 31: 2, 537-616.
- ____ (1998), "Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa", *Uztaro* 25, 47-110.
- ____ (1999), "Ná-De-Ná", *Uztaro* 31, 15-84.
- ____ (2002a), "EZ zirenez: **TVTV eta haren lagunez: I. So bat erro disilabiko kodagabeez". *ASJU*-n argitaratzeko lana.
- ____ (2002b), "Etymologiae (proto)uasconiae LXV", in Artiagoitia, X., P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. *ASJU*-ren Gehigarriak XLIV, UPV/EHU: Bilbo, 425-442.
- ____ (2002c), "Adar, abuntz bandi: sobre identificación de sustratos y morfología de la protolengua". in M^a J. García Soler (arg.), *TIMES XARIN, Homenaje al profesor Pedro A. Gainzarain*, UPV/EHU, Gasteiz, 417-429.
- ____ (2003a), "Etimología y reconstrucción en el campo vasco: historia de paradigmas". *ASJU*-n argitaratzeko.
- ____ (2003b), "Erroaren bilakabidea eta euskararen historiaurrearen periodizazioa". Aramaioko Udako Ikastaroetako hitzaldi argitaragabea.
- ____ (2004a), "EZ zirenez: **TVTV eta haren lagunez: II. Erro disilabiko kodadunez". *ASJU*-n argitaratzeko lana.
- ____ (2004b), "Cuernos, pellejos, caballos y otras anécdotas: Notas sobre la reconstrucción de algunas C- y V- iniciales y sobre gramática y morfonología protovasca antigua". Lan argitaragabea.
- ____ (2004c), "Cambio tipológico y deriva en vascuence". Inprimategian, Eusko Ikaskuntzaren *Linguistika Jardunaldietan*.

___ (2004d), “Regalos, costes y resultados en la reconstrucción del proto-vasco: el caso de *andere*”. Inprimategian, J. Alonso (arg.), *Homenaje a Olga Omatos*.

___ (2005a), “Algunos aspectos y consecuencias de la teoría de la raíz monosílábica en protovasco antiguo”. Lakarra & Hualde (arg.), 2005-en argitaratzeko.

___ (2005b), “Extensiones del paradigma: etimología y reconstrucción del protovasco”. *ASJU-n* argitaratzeko lana.

___, prestatzen-1, “Hacia una etimología formal en protovasco”.

___, prestatzen-2, “Onomatopeiak, fonosinbolismoak eta aitzineuskaren berreraiketa”.

___, prestatzen-3, “Sobre V-y V en (proto)vasco”.

___, prestatzen-4, “Monosílabos protovascos”.

___, & Hualde, J. I., arg. (2005), ***In Memoriam Larry Trask. ASJU-ko Gehigarriak* inprimategian.

MALKIEL, Yakob (1954), “Etymology and the structure of word families”, *Word* 10, 265-274.

___ (1975), “Etymology and modern linguistics”, *Lingua* 36, 101-120.

MITXELENA, Koldo (1950), “De etimología vasca”. Berrarg. 1988, 2 lib., 439-444.

___ (1957a), “Las antiguas consonantes vascas”. Berrarg. 1988, 166-189.

___ (1957b), “Basque et roman”. Berrarg. 1988, 107-115.

___ (1963), *Lenguas y protolenguas*. Berrarg. *ASJU-ren Gehigarriak*, Donostia.

___ (1964), *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Donostia, Auñamendi. Berrarg. 1988, 2. lib., 1-73.

___ (1974), “El elemento latino-románico en la lengua vasca”. Berrarg. *Palabras y Textos*, J. Gorrochategui (arg.), EHU, Bilbo, 195-219.

___ (1977), *Fonética histórica vasca*, 2. arg. *ASJU-ren Gehigarriak* 4, Donostia.

___ (1987), *OEH= Orotariko Euskar Hiztegia-Diccionario general vasco*. Euskaltzaindia, Bilbo.

____ (1988), *Sobre historia de la lengua vasca*, J. A. Lakarra (arg.), ASJU-ren Gehigarriak 10, Donostia, 2 lib.

MOHANAN, Tara (1989), "Syllable structure in Malayalam", *Linguistic Inquiry* 20: 4, 589-625.

POTET, Jean Paul (1995), "Tagalog monosyllabic roots", *Oceanic Linguistics* 34, 345-374.

SARASOLA, Ibon (1980), *Materiales para un thesaurus de la lengua vasca*, tesi argitaragabea, Bartzelona.

____ (1984-95), *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, Gipuzkoako Kutxa, Donostia.

SCHÜTZ, Albert J. (1976), "Take my word for it: missionary influence on borrowings in Hawaiian", *Oceanic Linguistics* 15, 75-92.

SZEMERÉNYI, Oswald (1962), "Principles of etymological research in the Indo-European languages". Berrarg. in *Scripta Minor*. J. P. Considine & J. T. Hooker (arg.), Innsbruck, 1987, 40-77.

TOVAR, Antonio (1956), "El problema de las etimologías en vascuence". Berrarg. in *El euskera y sus parientes*, Minotauro, Madril, 1959, 107-116.

TRASK, Robert Larry (1997), *The history of Basque*. Londres, Routledge.

WATKINS, Calvert (1990), "Etymologies, equations, and comparanda: types and values, and criteria for judgment". In Ph. Baldi (arg.), *Linguistic change and reconstruction methodology*, Berlin-New York: Mouton de Gruyter. 289-304.

ZAMBONI, Alberto (1988), *La etimología*. Gredos, Madril. Orig.italieraz, 1976.

ZAWISZEWSKI, Adam, argitaratzeko, "Vocabulario básico y préstamos en vascuence vizcaíno y otras lenguas". ASJU-n agertzekoa.